



DURANGOKO GAZTEGUNEA ETA LUDOTEKA

ERABILTZAILEENTZAKO ARAUTEGIA

ZIOEN AZALPENA

Erregimen Lokaleko Oinarriak arautzeko 7/1985 Lege apirilaren 2koak, 25.1 artikuluan, Udalari bere eskumenen esparruan era guztietako jarduerak sustatzeko ahalmena aitortzen dio, bai eta bizilagunen komunitatearen premiak eta aspirazioak asetzen lagunduko duten zerbitzu publikoak emateko ahalmena ere.

Erregimen Lokaleko Oinarriak arautzeko 7/1985 Lege apirilaren 2koak 4. artikuluan entitate lokalei araudiak egiteko eta bere burua antolatzeke aitortzen dien ahalmenaren emaitza den araudi honen asmoa Intxaurrondon (Laubideta, 6) kokatuta dauden gaztelekuaren eta ludotekaren edukia definitzea eta hara sartzeko eta hura erabiltzeko prozedurak eta barne-erregimeneko arauak ezartzea da, bai halaber haren kontrol-organoak zehaztea ere.

I. TITULUA: XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. Xedea

Araudi honen xedea Intxaurrondon (Laubideta, 6) dauden eta Durangoko Udalarenak diren LUDOTEKA eta GAZTEGUNEA zerbitzuak erabiltzeko baldintzak eta funtzionamendua arautzea da.

2. artikulua. Eremu subjektiboa

LUDOTEKA eta GAZTEGUNEA Intxaurrondon (Laubideta, 6) kokatutako zerbitzuak dira eta Durangoko 5-16 urte bitarteko ume eta gazteei zuzenduta daude. Durangoko Udaleko gazteria sailari atxikituta daude.

3. artikulua. Titularitatea

LUDOTEKAren eta GAZTEGUNEAREN titularitatea Durangoko Udalarena da.

II. TITULUA: ZERBITZUARI BURUZKO ARAUAK

4. artikulua. Helburuak

LUDOTEKA eta GAZTEGUNEA hezkuntza ez formalaren inguruko zerbitzua da. Hori dela eta, erabilera-araudi hori haren funtzionamendua arautzera bideratzen da, aisialdian heztea lortzeko eta parte hartzen duten haur eta gazteen sozializazioa eta garapen integrala bultzatzeko.

LUDOTEKAren eta GAZTEGUNEAREN xede nagusia haur eta gazteen gozamena eta garapen osoa eta iraunkorra sustatzea da: haurtzarotik nerabezarora. Garapen hori esanahi eta balio propioko etapa gisa ulertuz; hau da, beren buruen jabe egiten diren pertsonen prozesu bat, non beren gaitasunak eta harreman sozialak indartzen baitituzte, helduaroranzko ibilbidea arrakastataz eta satisfazioz burutzea bideratutak.

Gainera, gaztelekuak eta ludotekak bere lehenetasunezko zeharkako jardun-ildo gisa, hauek definitzen ditu:

- Euskararen normalizazioa
- Genero Berdintasuna
- Kultura arteko integrazioa
- Parte hartze aktiboa eta erabakitzeke ahalmena sustatzea
- Ingurune naturala eta kulturala ezagutzea eta zaintzea
- Komunitate sarea indartzea

5. artikulua. Zerbitzuaren erabiltzaileak

Gazteguneko eta ludotekako erabiltzaile izan ahalko dira 5 eta 16 urte bitarteko durangarrak. Erabiltzaile izan ahalko dira, halaber, beren ekintza-esparruan edo beren programa eta jardueretan haur eta gazteen sektoreari zuzentzen zaizkion taldeak edo elkarteak ere, beti ere Eusko Jaurlaritzako elkarteen erregistroan alta emanda badaude.

6. artikulua. Funtzionamendua

LUDOTEKA eta GAZTEGUNEAK Durangoko Udaleko gazteria sailaren proposamenez urtero onesten dituen egutegiaren eta ordutegiaren arabera egongo da zabalik. Asteburuetan emango da zerbitzua, larunbat eta igandetan, 17:00ak eta 20:30ak bitartean. Dena dela, ekintza berezietarako irekitzea badago, baita Durangoko Udalak onartzen dituen beste erabilera batzuetarako ere. LUDOTEKA eta GAZTEGUNEko ohiko ekintzez gain, lehentasunezko jardura ildoekin lotutako ekintzak antolatzeko aukera aurreikusten da.

7. artikulua. Kudeaketa

LUDOTEKA eta GAZTEGUNEAREN zerbitzua enpresa edo erakunde publiko edo pribatu batekin egindako kontratazioaren bidez emango dira, eta enpresa edo erakunde horrek alderdi guztietan emango dio arreta zerbitzuari.

Udalak zehaztuko du zerbitzua emateko modua, gai horri buruz bakoitzak aurreikusi dezakeenaren arabera. Baldintza Partikularren eta Preskripzio Teknikoen Pleguetan kontratatu beharreko epea, bai eta esleipendunaren eskaintzatik eratorriak eta kontratu-izaera dutenak ere.

Intxaurrondon kokatuta dagoen Gazte Informazio Bulegoak jardura eta ekintzei buruzko informazioa zabalduko du eta, hala badagokio, matrikulazioaren kudeaketa egingo du

III. TITULUA: ZERBITZUEN ERABILPENA

8. artikulua. Erabiltzaileak

LUDOTEKA eta GAZTEGUNEAK 5 eta 16 urte bitarteko umeei zuzenduta dago eta bertan adinaren arabera jarduerak bideratuko dira. Ludotekan 5 eta 11 urte bitarteko umeei zuzenduta dago eta gaztegunea, 12-16 urte bitarteko nerabeei.

9. artikulua. Jarduerak

LUDOTEKA eta GAZTEGUNEAREN jarduerak ondo bereizita egongo dira. Bi programek integrazioari, berdintasunari, hizkuntza inklusiboaren erabilerari eta ingurumenaren errespetuari buruzko jarduerak barneratuko ditu.

Ludotekarako, jarduerak adin-taldearen arabera antolatuko dira, ezaugarri eta behar espezifikoaren arabera. Jarduerak honako eremu hauek hartuko dituzte:

- Hezkuntza ez formaleko jarduerak
- Jardura musikalak
- Jokuen txokoa
- Irteerak
- Familiekin egiteko jarduerak
- Aisialdi kontsumistarako aletarnatibak
- Ohitura osasungarrien aldeko jarrerak hartzeko jarduerak

10. artikulua. Erabiltzaile izateko irizpideak

Hauek dira erabiltzaile izateko betekizunak:

- Erabiltzailea Durangon eroldaturik egon beharko du. Izen emateen epea amaituta, plaza librerik balego, ez ohiko epea irekiko da beste udalerrietako erabiltzaileak hartu ahal izateko.
- 8. artikuluan jasotakoa betetzea.
- Guraso edo legezko tutore batek edo guraso-ahala duenak sinatu behar duen izen emate



inprimakia betetzea

- Gehienezko erabiltzaile kopurua erabilgarri egongo diren espazioen aforoaren eta hezitzaile kopuruaren arabera zehaztuko da.
- Plaza lortu ez dutenentzako itxaron zerrenda egingo da.

11. artikulua. Zerbitzutik kanpo geratzeko irizpideak

Kasu hauetan, zerbitzutik kanpo geratuko da erabiltzailea:

- Araudian ezarritako adina ez betetzea.
- Gurasoek edo legezko tutoreek baja eskatzea, eskaera egiten den unetik aurrera.
- Zerbitzua ez erabiltzea lau egunetan justifikatu barik.
- 14. artikuluan jasotako araudi honetako arau-haustea.

IV. TITULUA: ERABILTZAILEEN ETA GURASO EDO TUTOREEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

12. artikulua. Erabiltzaileen eskubideak

- LUDOTEKA eta GAZTEGUNEaren jardueretan parte hartzeko eskubidea, edukiera-ahalmenaren barruan, eta instalazioak eta materiala berdintasun-erregimenean erabiltzeko eskubidea, ezarritako adin eta espazioen barruan.
- LUDOTEKA eta GAZTEGUNEko langileen aldetik tratu errespetuzkoa eta duina jasotzea.
- LUDOTEKA eta GAZTEGUNEan egongo diren jardueren informazioa jasotzea.
- Iradokizunak eta erreklamazioak egitea gurasoen edo tutoreen bitartez, ezarritako eta informatutako prozeduraren bidez.
- Zerbitzua kudeatzeko jarraibideen ale bat uneoro eskura izatea.

13. artikulua. Erabiltzaileen betebeharrak

- LUDOTEKA eta GAZTEGUNEko jarraibideak eta materiala behar bezala erabiltzea.
- Jardueren arduradunari eta zerbitzuaren gainerako erabiltzaileei tratu errespetuzkoa, duina eta egokia ematea.
- Zerbitzuaren arduradunek instalazioen eta materialaren erabilerari eta programatutako jardueren garapenari buruz emandako argibideei erantzutea eta aginduak betetzea.
- Gurasoek edo tutoreek, hala badagokio, prezio publikoa ordaindu beharko dute.
- Gurasoek eta tutoreek, halaber, zerbitzuaren arduradunen jarraibideak bete beharko dituzte, eta, bereziki, arduratsuak izan beharko dute zerbitzuaren hasieran eta amaieran haurrak eramaterakoan eta hartzean.
- Gurasoek eta tutoreek tratu errespetuzkoa, duina eta egokia izan beharko dute jardueren arduradunarekiko eta zerbitzuaren gainerako erabiltzaileekiko.

V. TITULUA: ARAU-HAUSTEAK ETA ZEHAPENAK

14. artikulua. Arau-haustea

Arau-hauste arinak izango dira ondorengoak:

- Instalazioak eta materiala behar bezala ez erabiltzea.
- Zerbitzuko arduradunek emandako argibideei eta aginduei jaramonik ez egitea

Arau-hauste larriak izango dira ondorengoak:

- Arau-hauste arinak behin eta berriz egitea.
- Gainerako erabiltzaileekiko errespetu egokirik ez izatea edo nahita egitea edozein eraso (fisikoa, ahozkoa, jazarpena, diskriminazioa, etab.).
- Zerbitzua ematearen arduradunenganako errespeturik ez izatea.
- Nahita kalteak eragitea LUDOTEKAko eta GAZTEGUNEko instalazioetan edo materialean
- Programatutako jarduerak behar bezala garatzea eragozteko.
- Ez egiteagatik, beste erabiltzaile baten aurkako eraso edo jazarpen-egoerak onartzea

- Arau-hauste oso larriak izango dira ondorengoak
- Arau-hauste larriak behin eta berriz egitea

15. artikulua. Instrukzio-prozeduraren arduradunak

Zehapen-prozeduren instrukzioa gazteria eta hezkuntza teknikariak eta zerbitzu-kontratuaren enpresa esleipendunaren ordezkariak osatutako batzorde batek ebatziko du, eta herrigintza arloko zinegotzi ordezkariak deituko du, falta larriak eta oso larriak gertatuz gero.

16. artikulua. Zehapenak

- Arau-hauste arinak ludotekatik edo gaztegunetik kanporatzeko zehapena astebetekoa izango da.
- Arau-hauste larriak ludotekatik edo gaztegunetik kanporatuz zigortuko dira, hilabeteko epean, eta, nolanahi ere, eragindako kalteak konpontzeko betebeharra barne. Azken kasu horretan, adingabearen aita edo tutoreak izango dira erantzule, edo, indarrean dagoen legeriaren arabera, dagokion pertsona.
- Arau-hauste oso larriak ludotekatik edo gaztegunetik behin betiko kanporatuz zigortuko dira, eragindako kalteak konpontzeko betebeharra barne. Azken kasu horretan, adingabearen gurasoak edo tutoreak izango dira erantzule, edo indarreko legeriaren arabera dagokionak.

AMAIERAKO XEDAPENAK

Lehenena. Araudi honetan xedatutakoa interpretatzean sor daitekeen edozein zalantza gazteleku eta ludoteka zerbitzuaren pertsonalak ebatziko du behin-behinean, eta hala badagokio, Durangoko Udaleko teknikari arduradunak, zeinen irizpideak berehala betearaztekoak izango baitira.

Bigarrenena. Durangoko Udalaren eskumena da araudi honetan ezarritakoa garatzen edo aldatzen duten erabakiak onestea. Horretarako, erabiltzaileen iritzia errespetatuko da, beren iritzia eman ahal dezaten bideak erraztuz.